



Aingervena etxebizitza

Aldacrak:

Ahozkoa:



43° 9' 18"

2° 33' 59"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Murgoitio auzoan aurkitzen dugun txalet berri hau 1997. urtean eginda dago. Elorriorako bide ondoan kokaturik dago, *Done Joanes (Ikus Done Joanes)* ermitara eta auzoaren goiko aldera igotzeko bidegurutzean, *Loitzateberri (Ikus Loitzateberri)* baserriaren parean. Orain arte izenik gabe egon den arren, duela 6 bat urte urdin kolorez margotu zenetik, herritarren artean “*pitufu-etxea*” izenez ezagutu izan da. Arroita baserri multzoen beheko soloetan kokatzen da.

Euskal Herriko Hegoaldean, XX. mendearen azken hamarkadetan asko hedatu zen estilo euskal-landatarrean taxutua dago etxea. Teilatua bi isurkitakoa da, eta fatxada oso modu simetrikoan antolatuta dago. Beheko solairuan, aterpea, ateak eta leihoak ditugu, eta goikoan, berriz, balkoi luzea, batasuna emanez bizitza biko etxeari.

toponimia

Aitzitik, izen berria, zorionez, euskal sistemari jarraiki eratu da, Bizkaiko sistema erabili beharrean Nafarroakoa erabili bazuen ere. Izenaren osagaiak dira: “Aingeru” izena eta “etxe” esangura duen -enea atzizkia (atzizkia, izatez, -ene da, eta, amaieran, artikulua jartzen zaio). Bizkaian -ena da horrelakoetan erabiltzen den egitura, eta Berrizen bertan, horren adibide ditugu Nikolasena (**Ikus Nikolasena**) eta Gasparrena (**Ikus Gasparrena**). Aingeru hitza, eta pertsona izena, osoa zaharra da gurean. Grezierako ángelos (“mezularia”) hitzetik, latinezko angelus sortu zen, eta hortik, euskarazko aingeru eta gaztelaniazko ángel. Izenak izan duen zabalkunde handia Aingeru Guardakoari zor zaio; izan ere, izen hori ematean haurra babestuago egongo dela uste da. Hala ere, XX. mendean Sabino Aranak asmatu zuen Gotzon izena, eta horrek ia erabat ordezkatu zuen Aingeru eguneroko erabileran.